

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure proiektuak funtziona dezan zenbait jarduera garrantzitsu ondo betetzea ezinbestekoa izango da.

Funtsezko jarduera alokairua da, hau da, txamarrak uzteko prozesua. Lehenik eta behin, txamarrak Amazonetik erosiko ditugu La Caixako maileguren bidez. Ondoren, gure lokalean gordeko ditugu. Hemendik enpresetara eramateko Noraren furgoneta erabiliko dugu. Arazoren bat egonez gero, gu joango gara txamarren bila konpontzeko (bitartean beste txamarra bat emango diegu).

Txamarrekin arazorik izango bagenu, soberan geratu zaigun diruarekin konpondu ahal izango genituzke eta, bitartean, ordezeko beste txamarra bat emango genioke bezeroari, ahalik eta arazo gutxien izateko haien eginkizunetan.

Gure proiektuak arrakasta handiagoa izan dezan, webgune bat sortu dugu. Bertan, gure bezeroek gure alokairuari eta enpresari buruzko informazio guztia izango dute eskuragarri. Gainera, beste hainbat gune izango dira bertan: egutegia, telefono zenbakia, posta elektronikoa, bertatik alokatzeko aukera eta iradokizunak bidaltzeko gune bat. Honi esker, bezeroekin kontaktuan egon ahal izango gara uneoro eta edozein zalantza argitzeko gai izango gara bertatik. Webgunea mantentzea ere jarduera garrantzitsua da, ondorioz, hau ere berritzen eta hobetzen saiatuko gara.